



Sen onez Interneteko itsasoetan

Iñaki Murua

Abiadura itzelekoak dira Internet eta teknologia berriak. Aldaketa aldaketaren gain, hortxe ditugu Facebook, Tuenti, Neurona, Dejaboo.net, Sonico, etab. Artikulugileak berak dioskunez, 600.000.000 erabiltzaile daude jadanik Facebook sarean. Informazioa inoiz ez bezalako tamainan heda daiteke gaur egun eta informazio horren igorleak eta jasotzaileak ere biderkatu egin dira. Zer ondorio du horrek guztiak gizaratean, zer ondorio irakaskuntzan eta, bereziki, hizkuntzen irakaskuntzan?

Artikulu honetan, gogoeta egiten du Iñaki Murua artikulugileak aurre-rapen horien guztien zer-nolakoez. Bere ustez, harreman pertsonalen aberastea da ondorio garbientako bat ondo gogoan hartuta tresnak tresna direla, eta, tresnek gizakiaren zerbitzuean egon behar dutela eta ez alderantziz.

Sarrera Sarri erabiltzen dut itsasoaren metafora Interneterako; ez naiz, ez lehena, ez bakarra horretan. Nabigatzea ere baliatu ohi da sareetan aritzea irudikatu eta adierazteko. Bestalde, benetako itsasoetan bezala arriskuak egon badaudelako, Adellek (1996) aspaldi ohartarazitakoari jarraikiz, nabigatu aurretik igeri egiten ikastea ez legoke gaizki, batez ere gizarate-sareen guneetan eta antzeko esparruetan berriak bagara. Edo gutxienez salbamendu-jaka edo flotagailuren bat eskura izatea.

Funtsezko bi osagai daude, nire ustez, horrelakoren bat jantzi edo erai-
kitzeko: jarrera eta baloreak batetik, eta sen onez jardutea bestetik.
Bizitzaren gainontzeko eremuetan bezalaxe, azken batean.

Beraz, egungo garai likidootan, oraina nahiz geroa egonkorak eta sen-
doak ez direnean, eskarmentutik abiarazita eta sen on hori kontuan
izanda, esaera zaharrak baliatuko ditut testua garatzeko, Interneten oro
har, eta aipaturiko guneetan bereziki, urik gabe ez itotzeko. Edo ur beroaz
ez erretzeko, gero epelaren beldur izan gintezkeelako.

Zerbait izango du urak bedeinkatua izateko

Pertsonak esparru teknologikoetan duten portaerari buruzkoa da Forrester
txostena. Erabiltzaileen kategoria berri bat definitu behar izan dute bi
urteren buruan Interneteko joera berriei erantzun ahal izateko (Bernoff,
2010): “*conversationalists*” jatorrizko bertsioan, hizlari edo mintzatzaile
izango liratekeenak euskaraz. Honako hauek ditugu: mezu laburrak idatzi
edota gizarte-sareen guneetan profil pertsonala eguneratzen dutenak
(datuak berriro eta osatu, argazkiak igo...).

Erabiltzaileen kopuruari buruz, internauten %85ak erabiltzen ditu maiz-
tasun handiz gizarte-sareak; hori horrela, finkatze-garaian ei gaude
dagoeneko, erabilera ia unibertsal bilakatu ondoren (The Cocktail
Analysis, 2011).

Facebook¹ deritzon gunean, adibidez, 600.000.000 erabiltzaile daude
(INTECO, 2011). Agerikoa da, hortaz, egungo Interneten erabileran, eta
gizartean ondorioz, gizarte-sareek hartu duten pisua.

Ohar bat aurrera jo aurretik, azpimarra dezagun murgilduko garen itsaso-
tan teknologia osagaietako bat baino ez dela. Horrez gain, norbanakoak
daude eta hauen arteko loturak edo harremanak. Ikuspegi horretan har-
tuko dute benetako zentzua gizarte-sareek eta horiek gauzatzeko eraiki-
tako gune, zerbitzu eta aplikazioek.

Bigarren ohar bat: gizarte-sareak baino, nahiago dut gizarte-sareen
guneak (webguneak) kontzeptua erabili. Sinonimotzat jotzen dira sarri,
webgune eta web orri hitzekin gertatzen denaren antzera. Hor ere bereizi
egiten dut; webgunea berez fitxategiz eta web orrialdez osatua baitago.

Nire ustez, beti egon dira gizarte-sareak, garaian garaiko teknologiak
bitarteko izanda². Besteekiko harremana ezinbestekoa du gizakiak
persona den heinean. Hala, informazioaren eta komunikazioaren tekno-
logiek (IKT, aurrerantzean) harremanak gauzatu eta hedatzeko aukera
paregabea eskaini digute; aurrez aurre sortutakoak zaindu eta man-
tentzeko ere sarri.

1. <http://www.facebook.com>

2. Adibidez, Itun Berrian ageri diren sareak irudikatzen saiatu dira blog honetan
<http://www.crossway.org/blog/2007/01/mapping-nt-social-networks> (11/07/08)

Bestela esanda, ez gaude espazio eta denbora jakin bati lotuak baldin eta Internetarako lotura badugu; herrixkarik isolatuenean ere ez. Lehen herria eta jaiotako garaia genituen funtsezko baldintzatzaile, horiek gainditzen ez ziren kasuetan behinik behin.

Orain, muga horiek gainditzea erraza da itsaso birtualetan eta ziberespazioan, berehalakoa, ez da garai bateko abentura. Honela ulertuta, gizarte-sareen webgune horiek bakoitzak dituen sareak irudikatzeko modua eskaintzen dute (Boyd eta Ellison, 2007).



Ez dakigu zoin uretatik edanen dugun

Ez dut gustuko teknologiei “berri” adjektiboa eranstea; zer den berri eta zer ez zehaztea ez baita batere erraza. Inoiz zientzia-fikziozkoztat jo zirenak gauzatu egin dira: Atriok (2010) egiaztatu duenez, joan den mendeko 60ko hamarkadan Star Trek sail famatuan agertzen ziren hainbat objektu gure artean ditugu jadanik, i-padak, ordenagailu pertsonalak edo memoria eramangarriak, esaterako. Areago oraindik; gaur berritatz jotzen duguna laster batean zaharkiturik egongo da.

Etengabeko aldaketak direla bide, geroa ez da egonkorra eta sendoa, garai likidoetan bizi gara antza (Murua, 2010) Beraz, artikulua idazten ari naizenetik argitaratzen denera auskalo kontu berririk ez ote den agertuko une honetan puri-purian dagoena baztertuta edota zein izango den artikuluan zehar adierazitako zerbitzu zehatzen irauzgitze-data.

Ikus dezagun hizkuntzen ikas-irakas prozesuen esparruko adibide bat. Bloga aipatu zuen Herrerak (2007), web 2.0 delakoa zedarritzeko eta hizkuntzen didaktikarekiko lotura argitzeko ahalegina egin zuenean; ez, ordea, mikrobloggingaren arloko erremintarik. Testu laburrak idaztean datza mikroblogginga, horretarako aukera ematen duten zerbitzu eta guneak baliatuta.

Egun ezagunenetakoa eta erabilienetakoa Twitter³ dugu; mezu bakoitzeko 140 karaktere baino gehiago ez da onartzen 2006ko uztailan plazaratu zen zerbitzu honetan. Horren hedapen azkarra izan duen *twitter* hau baliatuta espainolaren irakaskuntzan izandako esperientziaren berri eman du berriki Fornarak (2010), testuinguru berean sorturiko “El bazar de los locos”⁴ deritzon ekimenaren baitan.

Edozelan ere, joera berriak zeintzuk diren ezagutzeko, edo gutxienez sumatzeko, adi egotea komeni delakoan nago; Johnson et alii (2010) bezalako adituek egiten dituzten etorkizuneko azterketei erreparatuta, kasu. Ikas-irakas prozesuetara eta etorkizun hurbilera bueltatuta, bi dira aipatuko ditudan fenomenoak, eta bietan dute zer-ikusia sareek eta teknologiek: m-learning eta ikas-ingurune pertsonalizatuak (“*personal learning environment*” ingelesez).

Tresneria eramangarriarekin du lotura lehenengoak; orain ezagun zaigun e-learningari mugikorra den tresneria gehitzean datza, hots, labor esanda, ikas-irakas prozesuetan telefono mugikorrak, tabletak, i-padak eta horrelakoak baliatzea (Sierra, J., 2010).

Pertsona bakoitzak ikasteko erabili ohi dituen erremintak, informazio-iturriak, loturak eta ikas-esperientziek osatzen dituzte PLEak (Castañeda eta Soto, 2010) Eta kasu bietan, arestian aipaturiko pertsonen eta hauen arteko harremanen pisua ukazina da teknologiaz landa, besteekin eta besteengandik ikasten dugulako. Ikus dezagun eboluzio azkarraren adibide bat: eskuko telefonoen bidez gizarte-guneen sareetan sartzen den erabiltzaileen kopurua %20 igo da azken urtean, %29ra iritsita guztira (The Cocktail Analysis, 2011) Horrelako bilakaerek izango dute eraginik aipatutako bi fenomenoetan, zalantzarik gabe.

Orain arte azaldutakoak gazteentzakoak direla pentsatu eta esango duen pertsona ugari egongo da, gai teknologikoetarako belaunaldi galdu baten kide balira bezala. Prenskyk eman zuen, apika, bide horretarako, etorkin digitalak eta bertako digitalak kontzeptuak plazaratu zituenean, zenbaiten beldurrak harrotuz horrela. Dena den, Prenskyk berak gerora jakinduria digitala kontzeptua garatu du (Prensky, 2009) eta bisitari / egoiliar digitalak bereizketa ere proposatu da (White, 2009) egokiagoa delakoan.

3. <http://twitter.com/>

4. <http://www.elbazardeloslocos.org>

Hala eta guztiz ere, ez dut ukatuko bideo-jokorik edo Internetik gabeko mundua ezagutu ez duten gazteek berezko joera eta berebiziko trebezia dutela IKTen erabilerarako. Sarritan, baina, adinarekin baino zerikusi estuagoa du beharrarekin. Internet bidezko komunikazio sinkronoa, alegia, aldi berean ematen dena telefono-deiekin egiten dena bezalakoxea, urrun dagoenarekin modu merkean komunikatzeko beharra duenak ezagutu eta erabiltzen du sarri askotan; nahiz eta lagungarria izan, ez da erabat erabakigarria adina, ikasketa-maila edo lan-egoera (ONTSI, 2011) Beraz, gerta liteke berrogei urtez goitikoa izan arren tripa bustitzea.

Edan behar ez duzun ura utzi joaten

Hasieran adierazitako datuen arabera, internauta gehienak gizarte-sareetan partaide ditugu eta joera hori nagusitzen joan da azken urteotan. Gainera, erabiltzaile bakoitza, batez beste, bi gizarte-sareetan da partaide, eta lau erabiltzailetik bat sare gehiagotan parte hartzeko prest omen dago (The Cocktail Analysis, 2011).

Adituen aburuz, sareak alda litezke eta agian ez dira gerora gaur bezalakoak izango, baina geratzeko etorri direla ematen du. Hala ere, nire ustetan, ez dago ezinbestean sartu beharrik. Beste era batera esanda, gehiengoak hori egiteak ez gaitu nahi eta nahi ez horretara behartzen, ez da derrigorrezkoa uretan sartzea, edo “*norat ixurkia, harat ura*” esatera betetzea.

Gizarte-sareen gune batean kontua irekitzea eta profileko datuak betetzea pentsatu orduko, helburua argitu beharko genuke, hau da, zergatik erabili zerbitzu hori eta zertarako eraiki profila. Batetik, asmo eta helburu guztiak zilegi dira, iruzurra ez denean jakina. Bestetik, gune guztiak ez dira berdinak: orokorrak eta espezifikokoak dauzkagu, horizontalak eta bertikalak hurrenez hurren, aisiarekin edo lanarekin zerikusia dutenak, interes jakinei lotuak edo adin-tarte zehatzagoei zuzenduak... Hizkuntzak ikasteko bereziak ere badaude (Sotomayor, 2010).

Aldi berean, ez da baztertzekoa, arrazoi desberdinak direla medio, hamar kontutatik lau ez direla aktiboak jakitea. Maiz gertatzen da kontua ireki baina bere horretan uztea inoiz erabili gabe (The Cocktail Analysis, 2011). Ondorioz, aukera izateak ez du ezinbestean erabiltzea ondorioztatzen. Interneteko bestelako eremuetan gertatzen den bezalaxe, partaidetza pasiboa (Murua, 2007) ez da horren gertakari arrotza. Irtenbiderik egokiena oreka delakoan nago: parte hartu bai, baina era kontzientean; informazioa eman eta partekatu baina aditu eta komunikatu ere bai.

Uren itxirritadiak erakusten deuen iturririxea

Agian ez duzu inoiz bilatzaile batean, Googlen kasu, zeure izena jarri eta zer gertatzen den ikusi. Ala bai, eta gainera pertsonentzako bilatzaile bereziak ere badaudela jakingo duzu, www.123people.com esate baterako. Baten batek inoiz ez badu Interneten zuzenean parte hartu, iruzkinen bat idatzita besterik ez bada ere, berari buruzko edukirik ez dagoela pentsatuko du seguruenik, baina, adi, ustelak erdi ustel suerta baitaitezke erraz-erraz.

Litekeena da izen bereko beste pertsonaren baten esan-eginak agertzea... ala ustekabe galanta hartzea.

Nortasun digitala ez da bilaketa bat eginda norberari buruz agertzen dena, era sinplistan pentsatzen den bezalaxe, Internet bitartez zabaltzen den norberaren idea osoa baino (De Haro, 2011) Honetan bi osagai edo iturri leudeke: bakoitzak egindakoa eta besteek egindakoa. Eximitatea kontzeptua hasi dira erabiltzen, intimitatea plazaratzea litzatekeena, nolabait esateko (Pérez Lanzac eta Rincón, 2009).

Bestalde, gaur egun hainbeste argazki makina digital dagoenean, telefono mugikorrek hamaika aukera eskaintzen dituenean, Interneteko guneetan idaztea horren konplikatu ez denean... ez da lan handia informazioa jaso eta sareratzea, interesatuari ezer esan gabe maiz.

Badago eztabaidarako beste puntu bat: nortasun digitala norbere nitasunaren beste geruza bat den ala ezizenak baliatzea den nortasun hori eraikitze bide segurua. Azken hau proposatzen du INTECOK (2011) egindako gida baten gaztelaniazko bertsioan, euskarazko laburpenean ez bezala. Nahiz eta aurrez aurre gertatzen denaren antzera, jokatzeko garaian testuinguruak berebiziko garrantzia duela onartu, bat nator Genis Rocak berriki egin dioten elkarrizketa batean adierazitakoarekin (Sierra, G., 2011): nortasun digitala garena osatzera eta gure gaitasunak area-gotzera dator, ez beste zerbait ordezkatzera.

Bidenabar, dena kontrolpean izatea ezinezkoa dela jabetzea da garrantzitsua, eta, aldi berean, uhara ez bezala, barraskiloarenaren antzerako arrastoa uzten duela Interneten egiten dugunak (eta egiten ez dugunak); are, behin zerbait jarrita, horrek izan dezakeen bilakaera zail da zehazten, ezabatzen saiatu arren.

Horren guztiaren aurrean, jarrera aktiboaren aldekoa naiz. Eta era naturalean aritzearen aldekoa, amarruak edo trikimailuak alde batera utzita. Bestela esanda, guk geuk aukeratu behar dugu geure irudia, patua bailitzan zain egon gabe: sareetan nor garen zaindu, nor garen eraiki; zer erakutsi nahi dugun erabaki eta horren arabera jokatu. Nortasun digital hori sendoagoa den heinean zailagoa izango da faltsutzea edo lapurtua izatea, besteren batek ordezkatzeta, bide batez eremu jakin bateko “lagunak”, “adiskideak” edota kontaktuak engainatuta.

Esparru digitaletan jokatzeko irizpide nagusi gisa, bizitzako gainontzekoetan dauzkagunei erreparatu eta beroriei jarraitzea nahikoa izan litekeela uste dut. Gazteei zuzendutako kanpaina eta webgune espezialduetan irizpide hauxe azpimarratzen da; Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren “Kontuzdatos”⁵ da adibideetako bat. Aurrez aurre ere ez dugu erakusten garen guztia, ez dugu plazaratzen pentsatzen dugun guztia. Besterik gabe inork oihukatuko ote luke kalean ozenki berari gertatutakoa edota bere

5. <http://www.avpd.euskadi.net/s04-kontuzdt/eu/>

argazkiak kalean ezezagunei banatu helbidearekin batera? Horixe ba. Beste esaera zahar bat baliatuta, “ur isuria gaitz da biltzen”.

Ur geldia, ur hilgarria

Ez dakit hiltzeraino iritsiko den ur geldia aztertzen ari garen eremuetan, pertsonak aspertzearen ondorioz beharbada. Behin gizarte-sareetako gune batean parte hartzeko erabakia hartu badugu, ez dut gomendagarri ikusten geldi eta isilik geratzea, gune jakin horretan aritzeko modua ulertzeko denbora tarte laburra pasatutakoan behinik behin. Gogora dezagun kontuen %40 ez ei dela aktiboa (The Cocktail Analysis, 2011).

Erantzun gabe geratzen diren mezuak ere gehitu ahal dizkiegu geldi dauden ur horiei; komunikazioaren hilgarri, zalantzarik gabe. Webgune ugari ematen digu bertatik atera gabe kideekin komunikatzeko aukera, berez gizarte-sareen gune gisa ulertuak direnak baino gehiago. Komunikatzeko bide ugari izateak mezuak galtzea edo ez erantzutea ekar dezake, horren ondorioekin. Eta Interneten, komunikazio asinkronoa denean ere, hau da, posta elektronikoko bidezko mezuetan legez igorlea eta hartzailea ezinbestean ez daudenean aldi berean konektaturik, erantzun azkarra espero izaten du mezu bat igortzen duenak. Eta hari seguruenik ez dio balio izango azaltzeak dena delakoagatik ez dela irakurri mezu jakin hori.

Elurra bere aroan asegarri, handik kanpo gosegarri

Badago, bestalde, beste arrisku garrantzitsu bat; infoxikazio hitza jarri zion gertakariari Alfons Cornellak (Fumero, Roca eta Saez, 2007: 14). Segidako honetan datza, labur-labur esanda: jasotzen dugun informazio guztia ezin digeritu eta prozesatzearen ondorioz sortzen den intoxikazio-mota berria. Antzeko beste irudi bat baliatu dute Valerio eta Valenzuelak: informiboro osasuntsuak; hau da, informazioaz elikatzen den pertsona hori egoera orekatuan egon dadila.

Kontuan har dezagun, besteak beste, era guztietako webgune kopurua- ren ugalketa, horietan sortzen diren edukien gorakada etengabea, webguneen arteko loturek edota norbere e-postara oharrak eta jakinarazpenak bidaltzeko aukerak. Azken batean, eta itsasoarekiko alderaketara itzulita, tsunami baten antzekoak harrapa gintzake informazioak gainezka egiten badigu eta itotzeko arrisku bizian jarri; aurreko atalean azaldutakoaren alderantzizkoa, beraz.

Egoera areagotu egiten da, gizarte-sareei dagokienez, ikuspegi kuantitativoa nagusitu denean; bat nator Rocarekin (2009): tainaren araberrako hierarkia burugabea lehenetsi da. Zenbat eta “lagun” edo “jarraitzaile” gehiago hobe da irizpide zabaldua eta onartua, kalitateari edo kudeatu ahal den bolumen errealarri erreparatu gabe.

Horren aurrean, eta denbora mugatua dugula kontuan izanda, ezinbestekoa da lehenestea eta zarata baztertzen saiatzea. Aukeratu beharra dago: kontaktuak sailkatzea da bide bat, webguneak horretarako aukera ematen badu. Esate baterako, Twitter-en posible da zerrendak sortzea (une honetan 20 dira guztira erabiltzaile bakoitzak sor ditzakeenak) edo

besteren batek egindakoetatik hautatzea. Facebook-en, berriz, lagunen taldeak egin daitezke eta, are interesgarriagoa dena, posible zaigu talde bakoitzeko kideek gure datu eta informazioa eskuratu ahal izateko dituzten eskubideak bereiztea.

Beste aukera bat gune honetan: zeregin jakinetarako taldeak sortu. Horretarako ez da beharrezkoa aldezturik edo ondoren “lagunak” izatea. Bestetik, ez dut aholkatzen guztiari baiezkoa ematea; inor mindu gabe baina ezetz esaten ere jakin behar da gizarte-sareetan.

IKTez ari garela, informazioaz eta komunikazioaz beraz, komunikazioaren arloa ahaztu egiten du zenbaitek. Hau da, pulpitu digitalak balira bezala, norbere mezuak bidaltzeko erabiltzen dira gizarte-sarearen guneak, gai-nontzekoekiko harremana norabide bakarreko bilakatuta. Arestian aipatutako ikuspegi kuantitatiboarekin badu zerikusirik argirik honek.

Garaian garaikoa egitearekin, badugu beste gertakari bat; hainbat ataza batera egin nahian edota denbora luzeegiz nabigatzearen ondorioz egitekoak atzeratzea; prokastinatzea deitu ohi zaio. Dena den, ohartu ez duela podkastingarekin loturarik; bigarren hau, Aizpitarre eta Guilléni (2009) jarraikiz, audio eta bideo-fitxategiak Internet bidez zabaltzea baita.

Gaztearen maitasuna, ura bahean

Ukaezina da Interneten erabilera eta gizarte-sareen guneen erabileraren hedapena gazteen artean (Camacho eta Murua, 2010); orokorrean baino portzentaia handiagoan dira erabiltzaile aktibo. Eta egoera honek gurasoengan sortarazten duen kezka. Honetarako iturri desberdinak dauzkagu; ezjakintasunaz gain, susmo txarrak piztu egiten dira aldiro komunikabideetan plazaratzen direnekin. Baina kausa-ondorio lotura ez da horren sinplea; are, gaiztakeria-mota gehienak sarerik bako gizartean ere gertatu ohi dira.

Zertarako erabiltzen den Internet dugu alde batetik. Gazteek naturaltasun osoz eta era ludikoan baliatzen dituzte teknologiak, horrelako testuinguruetan heziak izan direlako, auto-ikaskuntzaz eta era informalean sarri (Merino, 2010).

Teknologiekiko ikuspegi gardena, alegia bitartekoa edo tresna zein den ahaztuta jokatzea, handiagoa da adina txikiagoa den heinean, baina ikuspegi ludikoa, aisia eta ezagunekin harremana dira nagusi erabilera aztertzen bada. Eta berriki aurkezturiko ikerketa batean agertzen denari erreparatuta (Livingston et alii, 2011) haurren gehiengoak gustuko du online komunikazioa, 11-16 urte bitarteko europar erdiek errazago ikusten dute norbera izatea on line eran aurrez aurre baino eta nerabeentzat sarritan Internet bidez komunikatzea errazagoa da antza. Hala ere, gutxiengoa da aurrez aurreko bizitzan benetako arazoak dituen.

Dena den, aritzea ez da nahikoa digitalki alfabetatzeko, Durallek (2010) adierazi duen legez. Eta, seguruenik, esparru digitaletan ere denboraren poderioz lortuko den heldutasunaz gain, alfabetatze digital hori ezinbestekoa da, besteak beste, trebetasun digital horien baitakoa delako aipatutako

nortasun digitalaren kudeaketa (Giones eta Serrat, 2010). Honetan guztian, alderdi informalak eta berdinen arteko ikaskuntzak berebiziko pisua dutela onartua, familiak, eskolak eta gizarte osoak izango dute erantzukizunik (Camacho eta Murua, 2010).

Beste alde batetik, gazteek, seme-alabek, egiten duten guztia ezin da kontrolatu; debekatzea ere ez da biderik egokiena. Beraz, hobe da bidaide izan, konfiantzaren bidez zubiak eraiki, eta bertako digitalak izan ordez ez daitezela umezurtz digitalak izan, alegia, gurasorik gabe heziak sareetan (Roca, 2009b).

Hirugarren alde bat ere badago. XXI. mende honetan eta gizarte-sareek duten hedapena aintzat hartuta, gizarteratze osoa ziberespazioaren esparru hori kontuan izan gabe ia ezinezkoa dela pentsa liteke, eta sarbiderik izan ez edota parte hartzen ez dutenen baztertze-digitalaren arriskuaz ohartaraztea ez dago soberan. Seguruenik, “igela haserreturik ere, urmaelari ez zaio axola”.

Ura bada geldi, urrutira begira hadi

Beste metafora hedatu bat erabilita, hodeia deiturikoak berebiziko garrantzia du ematen ari den bilakaeran; hodei konputazioa deritzo Internetez zerbitzuak eskaintzea ahalbidetzen duen teknologiarri. Beste era batera esanda, gure ordenagailuetan fisikoki fitxategiak eta bestelako informazioa gorde beharrean, geurean lan egin beharrean, hor nonbait, sarearen lekuren batean dagoenaren bitartez jardutea.

Abantailekin batera, Internetarako lotura dagoen edonondik gure fitxategietara edo aukeratutako webguneetara sarbide zuzena izateak dakarren erosotasuna esaterako, arriskuak badaudela onartu behar. Hamaika galdera daude tartean, informazioa noren esku dagoen, nor den informazioaren jabe edo ea desagertu ahal den, besteak beste. Adibidez, orain dela gutxi, honelako zerbitzu bat, “gogokoak” ordenagailu bakarrean gorde beharrean sarean mantendu eta partekatzeko aukera ematen dutenetako bat, *Delicious*⁶ hain zuzen, epe laburrean ez zela mantenduko zabaldu zen internauten artean; horrek, zer esanik ez, ezinegona eta kezka zabaldu zituen, hainbat informazio eta urtetako lanak kolokan jartzen zituen eta. Baina, egia esan, nork bere ordenagailuan lan eginda ere informazioa galdu egin daiteke edo, are okerragoa dena, lapurtua izan.

Ondorio gisa, ez ahaztu dohaineko zerbitzuak ez direla agian beti hain merkeak izango. Itzelezko erraldoi eta jaun bilakatu zaizkigu Google edo Facebook bezalakoak. Enpresekin ari gara, ez irabazi asmorik gabeko erakundeekin, eta interes handiak daude tartean, Echevarriak (1999) ohartarazi zuen bezalaxe.

6. <http://www.delicious.com/>

Mila urte igarota, ura bere bidean

Aipatu dugu, epe laburrera begiratu arren, Interneten munduan ia ezinezkoa dela aurrerantzean uraren bidea zein izango den jakitea. Alfabetatua izatearen kontzeptua aldatu da dagoeneko. Dena den, ñabardurak ñabardura, aurrez aurre zein ziberespazioan harremanak harreman izango dira. Eta sen ona, sen on.

2008an idatzitakoa berresteko moduan nago: harreman pertsonalak aberastea izan da web 2.0 delako fenomenoak ekarri didan arlo onenatariko bat.

Azken batean baloreak dira funtsezkoak, sinesten dugunak gidatuko du egiten duguna. Bitartean eta etorkizunean, tresnak hori baino ez dira izango, tresna. Zenbat eta erabiliago eta hedatuago egon, gutxiago errepertatuko diegu eta gardenago suertatuko zaizkigu. Bien bitartean, hor izango dugu sena, flotagailu bezala, ur azalean manten gaitezen.

Bibliografia eta webgrafia

- Adell, J.** 1996. "Primero aprenda a nadar" *El Mundo* [sarean] <http://nti.uji.es/docs/nti/el_mundo.html> (11/03/13)
- Alonso, C. eta Gallego, D. J.** (ed.), *Ante la Web 2.0*. Anaya-UNED. Erregistro-zenb.: 08/54748. ISBN: 978-84-691-4388-9.
- Alonso, C. eta Gallego, D.** (ed.) *Redes sociales para el aprendizaje*. Anaya-UNED. Erregistro-zkia.: 10/49538. ISBN: 978-84-693-2709-8.
- Atrio, S.** 2010. "Redes Sociales Educativas en la aldea global del año 2020". [DVDa]
- Aizpitarte, A. eta Guillen, N.** 2009. "Podcasting, audio-fitxategiak Interneten editatzeko teknika: funtzionalitatea eta erabilera didaktikoak". *Hizpide*, 70: 81-103.
- Bernoff, J.** 2010. "Social Technographics: Conversationalists get onto the ladder" *Empowered* bloga, 2010/01/19 [sarean] <<http://forrester.typepad.com/groundswell/2010/01/conversationalists-get-onto-the-ladder.html>> (11/03/13).
- Boyd, D. M. eta Ellison, N. B.** 2007. "Social network sites: definition, history and scholarship" *Journal of Computer-Mediated Communication*, 13 (1), 210-230 [sarean] <http://jcmc.indiana.edu/vol13/issue1/boyd_ellison.html> (11/03/13).
- Camacho, M. eta Murua, I.** 2010. "Redes sociales: preposiciones y alguna proposición" [CDa] *EDUTEC 2010*. ISBN: 978-84-9860-447-4 [aurkezpena] [sarean] <<http://www.slideshare.net/imurua/redes-sociales-preposiciones-y-alguna-proposicion-6052171>> (11/03/13).
- Castañeda, L. eta Soto, J.** 2010. "Building Personal Learning Environments by using and mixing ICT tools in a professional way" in *Digital Educational Review*, 18:9-25. [sarean] <<http://greav.ub.edu/der/index.php/der/article/view/163>> (11/03/13).
- De Haro, J. J.** 2011. "Identidad digital y redes sociales" *Coordinación TIC 2.0* bloga [sarean] <<http://redctic.blogspot.com/2011/03/identidad-digital-y-redes-sociales.html>> (11/03/13).
- Durall, E.** 2010. "Rediseñar el aula a través de Facebook". *Comunicación y Pedagogía*, 242-243: 29-35.
- Echeverría, J.** 1999. *Los señores del aire: Telépolis y el tercer entorno*. Destino: Bartzelona.
- Fornara, F.** 2010. "Twitter en la enseñanza del español como lengua extranjera" *El bazar de los locos, proyecto de escritura colaborativa* [sarean] <http://www.elbazarde loslocos.org/?page_id=748> (11/03/13).
- Fumero, A., Roca, G. eta Saez, F.** 2007. *Web 2.0*. Fundación Orange España. [sarean] <http://fundacionorange.es/areas/25_publicaciones/WEB_DEF_COMPLETO.pdf> (11/03/13).
- Giones, A. eta Serrat, M.** 2010. "La gestión de la identidad digital: una nueva habilidad informacional y digital". *BiD: textos universitarios de*

- biblioteconomía y documentación*, ekaina, 24. zkia. [sarean] <<http://www.ub.edu/bid/24/giones2.htm>> (11/03/13)
- Herrera, F. J.** 2007. “Web 2.0 y didáctica de las lenguas: un punto de encuentro”. *Glosas didácticas*, 16 [sarean] <<http://www.um.es/glosasdidacticas/gd16/02herrera.pdf>> (11/03/13)
- INTECO** (Telekomunikazio Teknologiarren Institutu Nazionala) (2011). *2.0 Webaren aurkezpen gida: kolaborazio-plataformen segurtasun eta pribatutasun alderdiak gidaren laburpena*. [sarean] <http://www.inteco.es/Segurtasuna/Behatokia/manuales_eu/Guia_web20_EUS> (11/03/13)
- Jonhson, L., Smith, R., Willis, H., Levine, A., eta Haywod, K.**, 2011. *The 2011 Horizon Report*. Austin, Texas: The New Media Consortium. [sarean] <<http://net.educause.edu/ir/library/pdf/HR2011.pdf>> (11/03/13).
- Livingstone, S., Haddon, L., Görzig, A., eta Ólafsson, K.** 2011. *Risks and safety on the internet: The perspective of European children. Full Findings*. LSE, London: EU Kids Online. [sarean] <[http://www2.lse.ac.uk/media@lse/research/EUKidsOnline/EUKidsII%20\(2009-11\)/EUKidsOnlineIIRports/D4FullFindings.pdf](http://www2.lse.ac.uk/media@lse/research/EUKidsOnline/EUKidsII%20(2009-11)/EUKidsOnlineIIRports/D4FullFindings.pdf)> (11/03/13).
- Merino, L.** 2010. *Nativos digitales. Una aproximación a la socialización tecnológica de los jóvenes*. Echeverría, J. (zuzend.) Doktore-tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Murua, I.** 2007. “Partaidetza pasiboa Interneten sortutako talde eta komunitateetan: kezka eta oztopoak” *Hizpide* 64: 24-34.
- Murua, I.** 2008. “Reflexiones de un nadador y navegante en el mar 2.0” [DVD].
- Murua, I.** 2010. “Prudencia y sentido común en tiempos líquidos” *Comunicación y Pedagogía*, 242-243: 19-23.
- ONTSI** (OBSERVATORIO NACIONAL DE TELECOMUNICACIONES Y DE LA SOCIEDAD DE LA INFORMACION). 2011. *Perfil socio-demográfico de los internautas, análisis de datos INE 2010*. Red.es Ministerio de Industria, Turismo y Comercio. Gobierno de España. [sarean] <<https://www.coloriuris.net/contratos/17d9e70c4053797621474de571a6d365>> (11/03/13)
- Perez Lanzac, C. eta Rincon, R.** 2009. “Tu extimidad contra mi intimidad” *El País.com*, 2009/03/24 [sarean] <http://www.elpais.com/articulo/sociedad/extimidad/intimidad/elpepusoc/20090324elpepusoc_1/Tes> (11/03/13).
- Prensky, M.** 2009. “H. Sapiens Digital: from Digital Immigrants and Digital Natives to Digital Wisdom”. *Innovate: Journal of Online Education* [sarean] <http://www.innovateonline.info/pdf/vol5_issue3/H_Sapiens_Digital-__From_Digital_Immigrants_and_Digital_Natives_to_Digital_Wisdom.pdf> (11/03/13)
- Roca, G.** 2009a. “Etiqueta, ética y métrica en las redes sociales” *Genís Roca* bloga [sarean] <<http://www.genisroca.com/2009/08/15/etiqueta-etica-y-metrica-en-las-redes-sociales>> (11/03/13).
- Roca, G.** 2009. “Huérfanos digitales” *Genís Roca* bloga [sarean] <<http://www.genisroca.com/2009/12/06/huerfanos-digitales>> (11/03/13)
- Sierra, G.** 2011. “Facebook es la discoteca de Internet. Entrevista con Genís Roca”. *UOC. Sala de prensa, entrevistas 2011UOC*. [sarean] <http://www.uoc.edu/portal/castellano/la_universitat/sala_de_prensa/entrevistes/2011/genis_roca.html> (11/03/13).
- Sierra, J.** 2010. “Entrevista con Mar Camacho: m-learning qué es” [bideoa] [sarean] <<http://www.youtube.com/watch?v=qQRQ0WzMZoI>> (11/03/13)
- Sotomayor, G.** 2010. “Las redes sociales como entornos de aprendizaje colaborativo mediado para segundas lenguas (L2)” *EDUTEC, Revista Electrónica de Tecnología Educativa*, 34 /2010eko abendua <<http://edutec.rediris.es/revelec2/revelec34/>> (11/03/07) ISSN 1135-9250.
- THE COCKTAIL ANALYSIS.** 2011. “Informe de resultados. Observatorio de Redes Sociales 3ª oleada”. [sarean] <<http://www.tcanalysis.com/uploads/2011/02/Observatorio-RedesSociales2011.pdf>> (11/03/13)
- Valerio, G. eta Valenzuela, R.** “De nativos digitales a informívoros saludables” (argitaratzear).
- White, D.** 2009. “Visitors and residents: the video” *Tall blog: online education with the University of Oxford* [sarean] <<http://tallblog.conted.ox.ac.uk/index.php/2009/10/14/visitors-residents-the-video/>> (11/03/13)